

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

26/2019 Mozioa, martxoaren 27koa, Betoñuko lehengo komentuan, aurreikusitako bi hezkuntza-proiektuekin batera, Arabako Lurralde Historikorako ekoizpen kultural eta artistikoko proiektu bat abian jartzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

26/2019 Mozioa, martxoaren 27koa, Betoñuko lehengo komentuan, aurreikusitako bi hezkuntza-proiektuekin batera, Arabako Lurralde Historikorako ekoizpen kultural eta artistikoko proiektu bat abian jartzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Vital Kutxa Fundazioarekin eta Arabako kulturaren eragile eta ordezkariekin batera, egin dezatela kultur eta arte sorkuntzako proiektu bat Betoñuko komentuan, Arabako Lurralde Historikoan arte eszenikoak, bisualak eta musikalak bultzatzearen.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari, Vitoria-Gasteizko Udalari, Eusko Jaurlaritzari eta Vital Kutxa Fundazioari eskatzen diete garatu dadila proiektu oso bat, kolaboratiboa eta sinergikoa izango dena aurreikusi diren beste bi proiektuekin eta Betoñuko komentuan etorkizunean egin litezkeen kultur eta arte sorkuntzako bestelako proiektuekin.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, Arabako Foru Aldundiarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin, handitu dezala Arabako artista eta sortzaileei ematen dien babesak eta sustatu dezala arte eta kultura arloko lan eta sorkuntza esparru eta guneak sortzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA